

# Hemen dira inauteriak





The background of the poster is a photograph of a street with multi-story buildings. Overlaid on this are several colorful illustrations of people and furniture on balconies. At the top left, a balcony has a clothes rack with various shirts and trousers, and two orange storage bins. To the right, a woman in a pink dress looks at clothes on a rack, while another woman in a pink top and green pants hangs a yellow shirt. In the middle left, a man in a red shirt stands on a balcony with a chair and a table holding books. In the middle right, a woman in a pink top and blue pants holds a yellow shopping bag, with a small child in a pink dress walking beside her. At the bottom left, a man in a blue shirt carries two pink boxes. At the bottom right, a woman in a brown top and blue pants carries a large blue bag. In the bottom center, a woman in a white top and blue pants stands next to a woman in a red top and grey skirt who is looking at a wooden cabinet on a balcony. To the right of the cabinet is a table with a lamp and some plants. At the very bottom right, a man in a blue suit is hanging laundry on a line.

# ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA

Martxoak 6-7-8

10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Postuak establezimendu atarietan egongo dira.

Parte-hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloea Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Eduarne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasa, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Iker Lauzirika, Arkaitz Uranga **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.us/@barren@tkm.eus](https://mastodon.us/@barren@tkm.eus)

Arkaitz Uranga

Itzultzailea

## Orri zuriaren sindromea



***"Konturatu naiz orri zuriaren sindromea guztiok pairatzen dugun zerbait dela, guztiok idazten dugulako etengabe"***

Izango dira honezkero pare bat urte mintegi batean Maialen Berasategiri hitz hauek entzun nizkionetik: «Itzultzaileok dugun abantaila da ez dugula orri zuriaren sindromea pairatzen; beti abiatzen gara eginda dagoen zerbaitetik». Ni itzultzaile naizen heinean —ez dakit badudan legitimotasunik nire buruari etiketa hori jartzeko, baina tira, nik egiten ez badut ez du beste inork egingo—, egia da ohi baino gehiagotan saihestu ahal izan dudala sindrome hori, baina BARRENEKO Iritzia sailean idazteko parada aurkeztu zaidan honetan, ihesbiderik gabe geratu naiz.

Errealitate horrekin topo egin dudanean, ordea, konturatu naiz orri zuriaren sindromea guztiok pairatzen dugun zerbait dela, guztiok idazten dugulako etengabe: mugikorrean, lanean, etxeko hozkailuan itsasten dugun post-itean... uneoro gaude hitzez eta esaldiz bete beharreko hutsuneen aurrean. Eta zenbat aje eta buruhauste askotan: lanean bidali behar dugun *email* garrantzitsu hori, ikasgaiko notaren laurdena balio duen lan hori, edo bidaltzea gustatuko ez litzaiagukeen baina bidali behar dugun mezu deseroso hori. Nola hasi? Zer esango dut? Nola amaitu? Sentsazio unibertsal dela esatera ausartuko nintzateke.

Egia da gaur-gaurkoz hamaika tresna dugula esku-ragarri lan horiek errazteko (adimen artifizial sortzailea, kasu), baina tentuz erabili beharrekoak direla uste dut. Baliagarriak izan daitezke, baina iruditzen zait gero eta gehiagotan erabiltzen direla amaierako emaitza lortzeko lasterbide bezala, eta ez laguntza bide bezala. Norberaren adierazpen eta hizkuntza gaitasunak martxan jartzera behartzen gaituzte lehen aipatutako egoerek, eta arian-arian garatzen diren gaitasun horiek ezinbestekoak dira. Apur bat kezkarria iruditzen zait azkenaldian ikusten ari naizen erosokeria kontu horien aurrean.

*BARREnek ez du bere gain hartzen Irtizia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefona jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus*

### Sokamuturraren harira

Euskal Herriko gainontzeko herrietan sokamuturra eta zezen eta gainerako animalien ongi-zatea errespetatzen ez dituzten antzeko ekintzak gutxitzen doazen neurrian, harritzekoa eta kezkatzekoa da Elgoibarren horien zenbakia handituz joatea. Gainera, kontuan hartzekoa iruditzen zaigu ekintza mota honek dakarren gastu ekonomikoa. Zer dago honen atzean? Erabaki politiko bat al da? Ez al ditugu gure herrian beste alternatiba batzuk eskaini nahi? Uste dugu horrelako praktikak ez direla ez errespetuzkoak, ez eredu-garriak, ez dibertsiorako alternatiba bat eta, are gutxiago, diru publikoaz sustatu beharreko ekintza bat. Norantza goaz elgoibartarrok eta nora bideratzen ari gara gure herria? Zein eredurantz?

G.A eta I.A.

### Informazio eskubidea

Erakundeen gardentasunak badu lotura eskaintzen den informazioarekin eta bere kudeaketarekin.

Zeharka jakin dugu udaletik hainbat proiektu garrantzitsueri buruz azterlan teknikoak burutu direla, hala nola Muguruzako eskolen inguruan,

Santa Klara, Urazandiberri, Sallobenteko ur-sare publikoa, gizarte eta hizkuntza arloan, proiektu horietan EH Bilduk duen interesaren jakitun izan arren (aurrez egindako eskari edo/eta proposamenei lotuta doazelako).

Herritarrek Udalari egindako eskaerak edo keak ere ez dira oposizioaren eskuetara iristen. Horrek 2.000 elgoibartar baino gehiagoren ordezkari politikoaren jardun politikoa oztokatzen du.

EH Bilduk, ordea, beste kudeaketa baten aldeko apustua egiten du. Hauteskundeak irabazitakoan udal informazioa edozeinentzat eskuragarria izango dela bermatuko dugu, Europako beste estatu aurreratu batzuetan bezalaxe.

Bitartean, eskua luzatzen jarraitzen dugu elkarrekin lan egiteko eta herri gardenago eta parte-hartzaileago bat eraikitzeko.

Elgoibarko EH Bildu

**Inauterietako argazki lehiaketa**

**Sariak**

- **EPAIMAHAIAREN SARIA:** Bi lagunentzako gau bateko egonaldia, afaria eta gosariarekin Elgoibarko Abatetxe landetxean. **DANOBATEk emandako oparia.**
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Errigorako produktu sorta.

- Bidali zuen inauterietako argazkiak [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera edo **688 655 658** whatsapp zenbakira.
- Eman zure izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat. Parte hartzeko azken eguna: **martxoaren 7a.**
- Lehiaketaren oinarriak: [barren.eus](http://barren.eus)





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Iñiguez Karkizaorako tunela pintadaz beteta dago:

"Pedro Mugurutz eta etorbidetik Iñiguez Karkizaora doan tunela pintadaz beteta dago berri ere. Lehen garbitu zituzten, eta berri ere margotu ditu norbaitek. Kaleak denonak dira, eta errespetu daitezela eskatzen dugu".



### Hildakoen erraustak mendian botatzea legezkoa al da?:

"Karakateko ton-torrera iristeko bidean zerbait zuria ikusi nuen lurlean, eta alboan lore sorta bat zegoen. Hasieran arrosa zela pentsatu nuen, eta ospakizunen bat egin zutela han, baina gero konturatu nintzen hildako baten erraustak zirela. Jakin nahi nuke erraustak mendian botatzea legezkoa den". Elgoibarko ehorztetxetik jakinarazi dutenez, legez ez dago ezer zehaztuta gai honen inguruan, eta Udal bakoitzak bere araudia dauka. Dena dela, azaldu dute Osasun Sailak eskatzen duela kutxa biodegradableak erabiltzea erraustak lurperatzeko. Naturarentzako ez da ona errau-



tsak botatzea, eta bereziki ganadua ibiltzen den lekuetan ez botatzeko gomendatu dute. Era berean, erraustak itsasora botatzeko ere baimena eskatu behar izaten dela zehaztu dute.



### Txalo bat Gym Berdea ekimenekoei:

"Txalo egin nahi nieke Mendaron udaletxeko plazatik Garagartzara jaisteko eskailara inguruko belardiak garbitu dituztenei, eta errespetua eskatu herritarrei aurrerantzean garbi mantentzeko. Gym berdea taldekoen ekimena izan dela jakin dugu, eta zoriondu nahiko genuke Udala ere, ekimen hori martxan jartzeagatik"



## Miguel Gabilondo Iriondo

2025ko otsailaren 21ean hil zen 89 urte zituela.

**Ez ditugu sekula ahaztuko  
elkarrekin bizi izandako uneak.  
Eskerrik asko, aita eta aitxitxa.**



## Lehen promozioetako ikasleak batu dira IMHn



**E**lgoibarko lanbide heziketaren 125 urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, 1991 eta 2001 urteen artean IMHn lanbide heziketa ikasi zuten ikasle ohiak elkartzeko ekitaldia egin zuten zapatuan. Gaur egun IMH Campus dena Elgoibarko Lanbide Heziketako hezkuntza arloko profesional talde baten proiektu gisa sortu zuten 1986. urtean, Euskal Herriko enpresa eta erakundeen laguntza lortu ondoren, eta Makina Erremintaren Heziketa Teknikoko Fundazioa eratu eta gero. IMH Campus-eko egoitza 1991 urtean zabaldu zuten.

Lehen urte haietan IMHn lanbide heziketa ikasi zuten ikasleentzat atek irekitzeko jardunaldia izan zen zapatukoa, eta 1991 eta 2001. urteen artean ikasle edo irakasle izandakoak zeuden parte hartzera deituta. Topaketara batutakoek ikasle garaiak gogora ekartzeko aukera

izan zuten eta talde argazkia atera ostean, bisita gidatua egin zuten IMHko instalazioetan. Makina Erremintaren Museoa egin zuten mokadurekin amaitu zuten jardunaldia. "Aspaldiko aurpegi ezagunak, ikasle, irakasle zein lankide elkartu gara goiz atsegina elkarrekin gozatzeko".

### Iragana, oraina eta geroa

Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125 urteurreneko batzordeak iragana, oraina eta etorkizuna irudikatzen dituzten ekintzak antolatu ditu aurtengo. Iraganeko ekintzak 2024ko irailean eta urrian egin zituzten, Elgoibarko Udalak antolatutako urteurrenaren irekiera ofizialarekin eta iraganari buruzko historia-tertulia kafe saioarekin. Lanbide Heziketaren Oraina ospatzeko urtarrian egin zuten lehen ekintza, Bosko Egunean, eta bigarrena izan zen zapatuko hau.

## Sandra Montes saritu du Gipuzkoako enpresari eta zuzendarien elkarteak



Sandra Montes Perez elgoibartarrak jaso du Aspegi Gipuzkoako emakume enpresari, profesional eta zuzendarien elkarteak urtero banatzen duen bi sarietako bat, enpresaburu kategoriari dagokiona. Sandra Montes Elgoibarko Cometel enpresako zuzendaria izateaz gainera, ScrapAd enpresako sortzaileetarikoa da, eta azken hori sortzeko eginiko ahaleginagatik eman diote Enpresaburu kategoriari dagokion saria. Beste saria, urteko zuzendari onenari dagokiona, Maria Jose Aranguren Querejeta urrestillarrak jaso zuen, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko zuzendariak.



## Martxoaren 8ko Mendaroko programak andrazkoen erresistentzia mugimenduetan jarriko du fokua

**F**axismoa munduan hartzen ari den indarra ikusita, emakumeek munduan barrena hasitako erresistentzia mugimenduei erreparatuko diete aurten Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak eta Diversas emakume migranteen taldeak Martxoaren 8aren harira eta, Udalak lagunduta, antolatu duten kultur programan.

Martxoaren 6rako (eguen), Kristina Berasain kazetaria gonbidatu dute, *Sahara, herri bat erresistentzian* liburua aurkeztera. Kazetaritza kronika bat da liburua, eta ahanzturara kondenatutako herriaren borroka kontatzen du, sahararren kontakizunak eta lekukotzak historiako pasarteekin tartekatuta. Gerraz, errepresioaz, heriotzaz eta erbesteaz ari dira liburuan lurralde okupatuetako eta kanpalekuetako sahararrak, bai eta beren nortasunari, duintasunari eta erresistentziari eusteko indarraz ere. Udaletxeko pleno aretoan izango da aurkezpena, gaztelaniaz, 19:00etan hasita.

Martxoaren 9rako (domeka), hitzaldia eta zine-foruma antolatu dituzte. *Prohibido recordar* filma proiektatuko dute San Agustin kulturgunean, 17:00etan. Josu Martinez eta Txeber Larreategik zuzendutako lana da, Saturrarango hondartzako kartzelari buruzkoa. Franco jeneralaren aginduz, Saturrarán "berezikiki asaldatzaile eta arriskutsu" gisa izendatutako emakumeen presondegi bihurtu zuten. Espainiako toki guztietatik ekarritako 16 eta 80 urte arteko bi mila emakume errepublikano izan zituzten giltzapean han 1937-1944 artean. Filma ikusi osterako, solasaldia ere iragarri dute Maria Gorosarri irakaslearekin. Zuzenbidean lizentziatua, Kazetaritzan lizentziatua eta Komunikazio Doktore Europarra da Gorosarri eta *Mujeres antifascistas 1932-1945* hitzaldia emango du.

## Emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu dute Elgoibarren martxoaren 8rako

Olaizaga kirol taldeak emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu du Elgoibarren, Kirol Patronatuaren eta Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin. 14 urtez gorakoek eman dezakete izena, eta horretarako Olaizaga kiroldegira deitu behar dute: 943 744 415. Tailerra doan izango da, eta plazak mugatuak izango direla aurreratu dute. Martxoaren 8an egingo dute tailerra kiroldegian bertan, 09:30etik 12:00etara.

Martxoaren 8aren harira, bestalde, izango dira ekintza gehiago Elgoibarren ere. Martxoaren 7an poteo-berriketaldi feminista egingo dute Maalan. Zatekeen taldearekin erromeria izango da 19:30ean, eta segidan, DJ Galtzagorriren emanaldia. Triki-poteo-berriketaldi feminista ere egingo dute, eta gauean emakume feministen afaria izango da Kultur Kafean. Zapatuan, mendi irteera egingo dute goizean, eta 13:15ean manifestazioa egongo da, Kalegoen plazan hasita. Sigma jatetxean egingo dute bazkaria ondoren.

---

## Erakusketa, autodefentsa tailerra eta elkarretaratzea antolatu ditu Itaiak Mendaron Martxoaren 8aren harira

Martxoaren 8aren harira Mendarorako antolatu duten programaren berri eman du Itaiak Euskal Herriko emakumeen antolakunde sozialistak. Batetik, *Emakumeon frontea* erakusketa zabalduko dute martxoaren 7an, jubilatuen ondoko lokalean, 17:30ean. Martxoaren 8aren zentzu iraultzailean jarri nahi dute azpimarra antolatzaileek erakusketarekin. Horretarako 1907. urtean Kopenhagen egin zen emakume sozialisten bigarren konferentziatik gaur arteko denbora-lerroa osatuko dute. Era berean, emakume langileen borrokaren inguruko olerkiak ere jarriko dituzte, eta bisitariak beren iritzi eta gogoetak lagatzeko txokoa ere izango dute.

Bestetik, bi ekintza lotu dituzte martxoaren 8rako. Goizean, autodefentsa tailerra egingo dute Gaztetxean (10:30), eta eguerdirako elkarretaratzea deitu dute. Herriko Enparantzan izango da, 12:30ean.

## Udaberriko oporraldiko ekintzetan izena emateko epea zabaldu dute

**A**txutxiamaikak eta udal ludotekak eta gaztelekuak udaberriko oporraldirako programazioa aurkeztu dute, eta gaur zabaldu dute izena emateko epea. Urteetan hurrentzako oporraldietako eskaintza udal ludotekak (Zehar heziketa eta programak kudeatua dena) eta Atxutxiamaikak (Elgoibarko Izarraren baitan) elkarlanean garatu eta modu bateratuan aurkeztu izan dute, baina azken urteetako esperientzia eta hausnarketaren ondorioz, eta herritarren eta haurren beharrak eta eskaerak kontuan izanda, aurrerantzean eskaintza banatuta egitea adostu dute, modu koordinatuan eta bateragarrian.

Atxutxiamaikak HH2tik HH5erako umeentzako txokoak prestatu ditu, eta bi txanda eskaini dituzte: apirilaren 14tik 16ra eta apirilaren 22tik 25era. 09:00etatik 13:00etara izango dira. Horrez gain, apirilaren 11n jolasa kalera aterako dute. Lekuederren hainbat tailer eta jolas egingo dituzte doan, 16:30etik aurrera. Informazio gehiagorako

943 741 626 telefonora deitu daiteke.

Ludotekak, bestalde, egunpasak eta ludotekan bertan egiteko hainbat tailer antolatu ditu LH4tik LH6ra arteko umeentzat. Izena emateko epea martxoaren 7an itxiko dute eta, plazak gaudituz gero, zozketa bidez esleituko dituzte lekuak. Informazio gehiagorako deitu 943 748 883 zenbakira. Gaztelekuak ere eguneko ekintzak eta egonaldia antolatu ditu DBHko nerabeentzat. Zalantzak argitzeko 943 743 228 telefonora deitu daiteke.

Oporraldiko eskaintzan parte hartzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak, eta familia ugarietarako, guraso bakarreko familiei eta bigarren seme-alabei deskontuak aplikatuko dizkiete, % 30eko murrizketarekin. Gainera, gizarte-laguntzen onuradunek % 70eko deskontuak jaso ahal izango dituzte. Atxutxiamaikaren eskaintzan parte hartzeko dirulaguntzak ere emango ditu. Informazio gehiago Herritarren Arreta Zerbitzuan edo 943 741 050 telefonoan.

### 'Zurrunbiloa' aurkeztu du Elhuyarrek, gazteen buruko osasuna aztertzen duen proiektua, zeinean Elgoibarko Udala ere ari den parte hartzen

Euskal gazteen artean, bost lagunetik batek buruko osasuneko asaldura bat du diagnostikatuta. Antsiolitikoen kontsumoa ere bider sei egin da gazteen artean, eta bereziki deigarria da neskatoei zer adinekin preskribatzen zaizkien antsiolitikoak: 11-12 urterekin. Zer gertatzen ari den gertutik ezagutzeko eta "gazteei arretaz entzuteko" asmoarekin, Elhuyarrek *Zurrunbiloa* proiektua sortu du, Danobatgruppen babesarekin. Martitzenean aurkeztu zuten proiektua Donostian eta beste hainbaten artean Jose Antonio Hidalgo Mangas Danobatgroupeko lehen-dakariordeak, Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak eta Maialen Aranguren Gazteria Saileko teknikariak ere parte hartu zuten.

Zurrunbiloa proiektua hiru fasetan banatu dute. Lehenengo fasean, hamar aditurekin eta lau gaztek emandako testigantzekin bost bideo-tako serie bat osatu dute, besteak beste. Bigarren fasean, Elgoibarren, herri mailako diagnosi



bat egingo dute, eta, hirugarren fasean, gizarte-ari, emango diote protagonismoa. Ikus-entzunezkoen gain, *zurrunbiloa.eus* webgunea ere sortu dute. Bertan, adituei egindako elkarrizketak, gurasoentzako eta gazteentzako aholku edo proposamenak, laguntzarako baliabideak eta eduki sakonagoak egongo dira kontsultagai. Nerabeen garapenari buruzko azalpen teknikoagoek ere izango dute tartea webgunean.



## Harrera protokoloa diseinatuko du Mendaroko Udalak

Herrira bizitzera datozen bizilagun berrientzako harrera protokoloa diseinatu eta martxan jarriko du Mendaroko Udalak, Emun aholkularitzako gidaritzapean. Helburua zera da: bizikidetzaren indartzea, jatorria edozein dela ere, pertsona guztiek komunitatearen parte sentitzeko aukera izan dezaten. Horretarako, kanpotik Mendarora datozen pertsonen "harrera hobea egin" eta orientazioa eskaini nahi diete, "Mendaro hobeto ezagutzeko eta herrian integratzeko baliabideak izan ditzaten".

Protokoloa bi fasetan garatuko dute: lehenengo, harrera instituzionalari dagokion parte landuko dute, langileentzako prestakuntza eskainiz eta baliabideen gida sortuz. Bigarren fasean, harrera integrala landuko dute, eta horrek herriko eragile desberdinen parte-hartzea eskatuko duela aurreratu dute Udaletik, "bizilagun berrien babes-sarea osatzeko eta herriko bizitzan beraien integrazioa errazteko".

### Gonzalo Castro eta Adan Leon garaile, orri-markagailuen lehiaketan



Martitzenean banatu zituzten Elgoibarren VIII. orri-markagailuen lehiaketako sariak. Guztira 718 lan jaso dituzte antolatzaileek, bi mailatakoak batuta. Lehenengo mailan, Gonzalo Castro Castoren (LH1) lan bat saritu du epaimahaiak eta, bigarren mailan, Adan Leon Cancarena (LH6). Sarituen lanak orri-markagailu bihurtuko ditu orain Gotzon Garate udal liburutegiak, baina *Bruna* ipuina ezagutarazteko kanpainan parte hartu zuten dendetan ere eskuratu ahal izango dira.

### Martxoko lehen asteko ekintzen berri eman dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokitik

Martxoaren 4, 5 eta 6rako antolatu dituzten ekintzen berri eman dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokitik. Hasteko, hilaren 4an (martitzena), mozerro-dantza egingo dute 17:30etik aurrera, Esther disko jartzaileak girotuta. Dantzaldi ostean, berriz, mokadua egingo dute, indarrak berritzeko (19:30-20:30). Horren harira jakinarazi dute domekan, hilaren 2an, ez dela dantzaldirik izango.

Martxoaren 5ean eta 6an, berriz, lehen soro-sopenei buruzko ikastaroa emango dute Gurutze Gorriko boluntarioek. Gaztelaniaz izango da ikastaroa eta gehienez hogeit hamar lagunentzako lekua egongo da. Izena emateko epea zabalik dago. Astelehen eta barikuetan eman ahal izango da izena, 11:00etatik 12:00etara, Jubilatuen biltokian bertan, edota telefonoz: 943 740 526 / 688 742 013 (Whatsappa).

### Stock kale azoka, datorren astean

Txankakua Merkatarik Elkartek stock kale azoka antolatu du datorren asteko. Martxoaren 6an, 7an eta 8an egingo dute dendak erabiltzeko, eta azken edizioetan bezala, dendak atarietara aterako dituzte produktuak, prezio merkeagoan. Merkataritza txikiari bizia ematea da ekimenaren helburua.

### Sanbartolomeetako Nerabeen Eguna antolatzeko bilera, martxoaren 7an

San Bartolome jaietako Nerabeen Eguneko egitaraua diseinatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko bilera antolatu du Elgoibarko Udalak martxoaren 7rako (barikua). Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Sailekoek dinamizatuko dute bilera, eta nerabeek beren egunean zer eta nola egin nahi duten erabakitzeak aukera izango dute. Bilera Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, 17:00etan.



*“Sare sozialak erakusleihoa dira, aktore izateko bidean”*

## ALEX R. ETXEGIBEL Eduki sortzailea

26.000 jarraitzaile ditu Alex R. Etxegibel gazteak (Elgoibar, 2007), TikToken, eta Euskal Eduki Sortzaileen gidan sartu dute. Eguneroko bizimoduan gertatzen zaizkionak kontatzen ditu bideoetan, azkenaldian bere arreba Thirisekin. Ez zaio 'influencer' dela esatea gustatzen, baina konturatuta dago bere bideoek oihartzun handia dutela. Elgoibarren ez ezik, Euskal Herri mailan egin da ezagun, eta fama hori tranpolin moduan baliatu nahi du, etorkizunean aktore izan nahi duelako. Batxilergoko bigarren mailan dago eta datorren ikasturtean Kazetaritza ikasteko asmoa dauka. Dantzan eta antzerkian ere badihardu azken urteotan, eta telebistako hainbat telesailarako 'casting'-etan ere hartu izan du parte.

✍️ Ainhoa Andonegi / 📸 Asier Orbea

**Kazetaritza ikasten hasiko zara datorren ikasturtean, baina zuk aktore izan nahi duzu eta hasia zara dagoeneko telebista munduan lekua egiten. Sare Sozialak horretarako tranpolin moduan ikusten dituzu?**

Bai, dudarik gabe; haietan egin naiz ezagun, eta *Goazen* telesailekoek, adibidez, sare sozialen bitartez kontaktatu dute nirekin. *Goazen*-ekoei ere interesatzen zaizkie ikusleak, eta jakin badakite telesailean agertuko banintz nire jarraitzaile askok ikusiko luketela telesaia.

Produktoreentzat inportantea da jarraitzaileak edukitzea. Oso mundu konplikatu da hau, eta dena behar da atea zabaltzeko. Hasi naiz muturra sartzeko telebistako hainbat programatan, baina zaila da lekua egitea. Orain dela lau urte hasi nintzen antzerkigintzan, eta dantzan ere urte asko daramatzat. *Goazen* telesaileko *casting*-ak egin izan ditut, eta beste proba batzuetan ere hartu izan dut parte. Aktore izan nahi dut, baina bitartean kazetaritza ikasten hasiko naiz.



## **26.000 jarraitzaile dituzu TikTok sare sozialean. Ardurarik sentitzen al duzu?**

Ez nuke esango *influencerra* naizenik, baina ardura apur bat badaukat, bai, eta badakit sortzen dudana edukia zaindu egin behar dudala. Jende askok ikusten nau eta ezin dut edozer argitaratu. Uste nuenak baino jende gehiagok ezagutzen nau kalean ere. Gabonen bueltan Azpeitira joan nintzen parrandan lagunekin, eta autobusetik jaitsi orduko hasi zitzaidan jendea argazki eske. Gaua amaitzerako 150 bat argazki aterako nituen! Nire lagunek ere esan zidaten ezinezkoa zela nirekin parrandan lasai ibiltzea. Batzuek irratian entzun nindutela esaten zidaten, baina gehienek TikTok-etik ezagutzen ninduten, eta askok eskerrak eman zizkidaten bideoak euskaraz sortzeagatik.

## **Euskarazko Eduki Sortzaileen Gidan sartu zaituzte orain. Hasieratik egin zenuen euskaraz sortzeko hautua?**

Hasieran Youtuberra izan nahi nuen eta, han ikusten nituen bideoak gaztelaniaz zirenez, nik ere izan nuen garai bat gaztelaniaz sortzen nuen. Oso umea nintzen, eta nire bideoek ez zeukaten arrakastarik. Baina gero konturatu nintzen hura ez nintzela ni. Ni oso euskalduna naiz, eta gustatzen zait gainera euskalduna izatea: euskal folklorea, euskal kultura... Nire identitatea eraiki nuen, eta euskaraz bizi nintzenez, bideoak ere euskaraz sortu behar nituela pentsatu nuen. *Give me my money* eslogana *trending topic* edo boladako gaia egin zen Estatu Batuetan eta nik eus-

*"Entretenezko ez ezik, informatzeko ere erabiltzen ditut sare sozialak"*

karaz egin nuen. Arrebarekin sortu nuen bideoa eta konturatu nintzen arrakasta izan zuela.

## **Arreba aipatu duzu. Zure arrakastatik zenbat zor diozula uste duzu?**

Asko! Arrebak eta biok sortzen dugun edukia oso erakargarria da, eta nire jarraitzaileak arrebaren jarraitzaile ere badira. Nik bakarrik edo berak bakarrik ez genuke lortuko bion artean daukagun arrakasta. Ni bakarka hasi nintzen, eta egia da lortu nituela jarraitzaileak eta orduan deitu zidatela *Goazen* telesailetik ere, baina arrebarekin hasi nintzenez jarraitzaile kopurua izugarri handitu zen. Oso harreman polita daukagu eta bideoetan hori erakusten dugu. Bideo batzuk aurretik prestatzen ditut, baina askotan kamera piztu eta irteten zaiguna grabatzen dut; asko inprobisatzen dugu. Ez bada ezer irteten, egun horretan ez dut ezer publikatzen. Bideo dinamikoak gustatzen zaizkit, arinak, freskoak... Sortzen dudana ikusten dudanean, barre egiten dut neuk ere. Esango nuke ikustea gustatzen zaidana sortzen dudala. TikTok sare sozialari ere gustatu egin behar zaio, bestela ez dio jendeari erakusten.



*Birakaren Gabonetako emanaldian ateratako argazkia.*

Batzuek badakit zuzenean bilatzen dutela nire kanala, baina beste askori agertu egiten zaizkie nire bideoak, eta horretarako erakargarria iruditu behar zaio TikToki. Dena neurtzen du TikTok-ek, eta badaki zeinek ikusi duen bideoa amaieraraino ere. Zenbat eta gehiago ikusi, orduan eta gehiago erakusten dizkizu. Une honetan nire jarraitzaileen %40 inguru sartzen da zuzenean nire kanalean eta beste %60ri agertu egiten zaizkio nire bideoak.

### **Kontatuko diguzu anekdotaren bat?**

Egunero bideo bat igotzeko ohitura neukan, baina egun baten ez zitzaidan ezer bururatzin. 21:00ak ziren, eta ez nuen ezer publikatu. *Goazen*-eko *casting*-ean parte hartuta nengoen ordurako, eta telesailako gidoiak nituen. Bururatu zitzaidan broma bat publikatzea esanez *Goazen*-eko gidoiak filtratuko nituela! Sekulakoa izan zen, *Goazen*-ekoak ere jarraitzen hasi zitzaizkidan, eta BECen egin zuten estreinaldira gonbidatu ninduten. Haiekin pasatu nuen eguna Barakaldon, eta gero, Donostiako Antzoki Zaharreko kontzertura ere gonbidatu ninduten. *Goazen*-eko managerrarekin harreman ona daukat. Gustatuko litzaidake *Goazen*-eko akto-re izatea, adibidez.



## MOTZ MOTZ .....

### ■ **Aurkeztu zure burua.**

17 urte ditut, eta eduki sortzailea, aktorea eta dantzaria naiz.

### ■ **Zein famaturen telefono zenbakia daukazu agendan?**

*Goazen*-eko managerrarena eta Luma Otaño eduki sortzailearena. Horiek dira agian famaturenak.

### ■ **Zein filmetako protagonista izan nahi zenuke?**

Beldurrezko film baten agertzea gustatuko litzaidake, *Scream* edo horrelakoren batean.

### ■ **Triste zaudenean animatzen zaituen kanta bat.**

ETS asko gustatzen zait; oso animatuak dira kantuak.

### ■ **Eta, zein kanta tristetzen zaitu?**

*The night we meet* kanta. Oso tristea da, baina polita.

### ■ **Zer esaten du ispiluak zutaz?**

Denetik. Egunaren arabera zein guapo edo zein itsusi nagoen. Bietako bat, mugan bizi naiz.

### ■ **Zure ametsa?**

Aktore izatea.

### ■ **Amesgaizto bat?**

Heriotzak beldur handia ematen dit.

### ■ **Sare sozialen bidez jaso duzun mezurik bitxiena?**

Harritzen nau ezezagun batek *Maite zaitut* esatea.

### ■ **Grabatu duzu inoiz grabatu ezin daitekeen zerbait?**

Ez, mugak jartzen ditut eta kontuz ibiltzen naiz.

### ■ **Inauterietako mozorroa, prest?**

Bai, ideia badaukat.



### Nola daramazu famatu izatearena?

Uste dut orokorrean inor ez dagoela prestatuta famatu izateko. Niri hasieran oso arraroa egiten zitzaidan, baina momentuz behintzat, jendea oso jatorra da nirekin. Esperientzia txarren bat edo beste kenduta, modu onean gerturatu zait beti jendea. Agian ez dago ondo nik esatea eta oso egozentrikoa naizela eman dezake, baina nigan etortzen direnak miresten nautelako etortzen dira, eta hori oso aberasgarria da. Nirekin argazkia ateratzeak sortzen dien ilusio aurpegia ikustea oso polita iruditzen zait. Horrek zoriontsu egiten baditu, nola esango diet ezetz? Harritu nauena da gerturatzeko zaizkidan asko oso gazteak direla, umeak, eta askotan galdetzen diot nire buruari nolatan ezagutzen nauten. Baina egia da momentu batzuetan nahiko nukeela Zarautzera joan eta izozki bat lasai jatea. Ez naiz Brad Pitt eta leku askotan bakean uzten naute, baina begiradak eta komentarioak igartzen ditut inguruan. Hala ere, fama hau tranpolin moduan ikusten dut, eta sare sozialak erakusleia dira aktore izateko bidean. Benetako eskaparatea gainera, ez dudalako gezurrik publikatzen.

### Zenbat denbora eskaintzen diezu sare sozialei?

Ez nuke esango edukiak sortzeak denbora

*"Egia da momentu batzuetan nahiko nukeela Zarautzera joan eta izozki bat lasai jatea"*

gehiegi kentzen didanik. Orain ez dut egunero sortzen; astean bi-hiru bideo egiten ditut. Telefonoko kamera erabiltzen dut, eta gero igotzen dut bideoa TikTok-era; ez dut zuzenean bertan grabatzen. Baina kontsumitzaile moduan, bai, asko kontsumitzen dut. Egunean bi-hiru ordu bai. Ez nuke esango engantxatuta nagoenik. Gauza asko ikasi ditut sare sozialen bidez, informatzeko ere erabiltzen ditudalako. Eskolan Haitzuloaren Mittoa lantzen hasi ginenean adibidez, banekien zer zen, sare sozialetan irten zitzaidalako. Hilketei buruzko dokumentalak ere ikusi izan ditut, musika ere sare sozialen bidez entzuten dut... Informazio pila bat dago eta Google erabili beharrean TikTok erabiltzen dut askotan. Badakit informazio faltsua ere badagoela, baina ez dut nire burua imajinatzen sare sozialik gabe. Batzuetan iritsi naiz aspertzera ere, ez delako inoiz bukatzen. Jaitsi eta jaitsi egin dezakezu, infinituraino.

### ■ Noraino iritsiko zinateke jarraitzaileak gehitzeko?

Naizen bezalakoa izaten jarraituko dut. Gusatzen zaionari ondo, eta ez zaionari gustatzen, utzi dezala.

### ■ Goazen! Nora?

Netflixeko beldurrezko telesail batera.

### ■ Zenbat zor dio Alexek Thirisi?

Asko. Thirisi esker lortu dut arrakasta.

### ■ Elgoibartarra zara, eta...

Aktorea, dantzaria eta oso jatorra.

### ■ Parrandarako plaza bat?

Azpeitia.

### ■ Sakeleko telefonoa komuneko zulotik erori zaizu.

Eskua sartu, lehortu eta pizten saiatuko nintzateke. Nik uste dut funtzionatuko lukeela.

### ■ Telebistako zein saiotan hartuko zenuke parte?

Mihiluzen.

### ■ Ikustezina zara. Zertarako aprobetxatuko zenuke?

Gustuko dudan norbaiten etxera joateko, sekretuan.

### ■ Norekin egingo zenuke dantza gustura?

Umetatik nire irakasle izan denarekin, oso harreman ona izan dugu beti. Gaur egun dantzatzen gara elkarrekin, beraz, amets hori bete dut.

### ■ Sanbartolomeak dira eta udaletxeko balkoian zaude txupina botatzeko prest.

Ez diot sekula pregoiari kasurik egiten. Osasuna denontzat eta gora Euskal Herria.

### ■ Definitu Elgoibar hitz batean.

Berezia.

### ■ Euskara ala ezkara?

Bagara.



## *Mikel Uribesalgo Mujika*

2025ko otsailaren 20an hil zen, 59 urte zituela.

***Zuk emandako guztiagaz eta  
zuk lagatako hutsuniagaz  
geratzen gara.***

Etxekoak



## *Mikel Uribesalgo Mujika*

2025ko otsailaren 20an hil zen, 59 urte zituela.

***Plazer handia izan da, Mikel,  
bizitzako makina bat une zurekin  
partekatzeko aukera izatea.***

Familiakoak



## *Mikel Uribesalgo Mujika*

***Zure presentzia, alegantzia eta elegantzia  
edarrak ziran gure kuadrillan.  
Alkarrekin bizi izan dittugunak  
gure oroimenian biziko dira betiko.  
Zauden lekuan zaudela, besarkada haundi bat, Mikel!***

[ Elgoibarko kuadrilla ]



## *Mikel Uribesalgo Mujika*

2025ko otsailaren 20an hil zen, 59 urte zituela.

***Udalaitzetik Karaktera  
egin diguzu bidea  
eta gu izan gara zure itzala.  
Iparra markatu diguzu  
orduan zu, gure iparrorratza.  
Maite zaitugu, Mikel,  
Arrasateko rockeroa,  
Elgoibarko lankide bikaina.  
Musu handi bat zerura,  
zapatilak jantziko ditugu  
eta tontorrean elkartuko gara.***



## *Mikel Uribesalgo Mujika*

*Elgoibarko Udaleko udaltzaina*

2025eko otsailaren 20an hil zen.

***Eskerrik asko  
Elgoibar zaintzen egindako lanagatik.***

Elgoibarko Udala, udalbatza eta lankideak.




## *Jexuxa Garate Egaña*

2025eko otsailaren 25ean hil da, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Indar eta buru,  
bizitzeko grinaren eredu***

Etxekoak





## NAIARA MARTIN

Atxutxiamaikako arduraduna

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Aisialdi Sailak 30 urte beteko ditu aurten, eta hausnarketa prozesu batean murgilduta dago. Aldaketak iragarri dituzte funtzionamenduan, eta egitetik eragitera pasatuko dira. Euskalduntasuna landuko dute ume, nerabe eta gazteekin zuzenean, eta ekintzetan baino gehiago, prozesuan jarriko dute arreta.

*“Egitetik eragitera pasatuko gara, ume, nerabe eta gazteak euskararen eragile izan daitezen”*



### **Aldaketak iragarri dituzue Atxutxiamaikan.**

Bai. Elgoibarren euskarazko aisialdian hutsunea zegoelako sortu zuen Elgoibarko Izarrak Atxutxiamaika duela 30 urte, baina gaur egun, zorionez, aisialdi dinamika bizi-bizi dago herrian eta horrek eraman gaitu hausnartzera. Gure aisialdi eskaintzaren balio erantsia zein izan zitekeen bilatu nahian ibili gara azken urteotan, eta konturatu gara aisialdia euskaraz eskaintzeak gaur egun ez daukala balio erantsirik. Guk azken urteotan Ludotekarekin elkarlanean antolatu ditugu udako, neguko eta udaberriko oporraldiko

eskaintza, eta oso ondo moldatu gara, helburuetan bat egiten dugulako. Baina konturatu gara eskaintza adin tarte zabal bati egin arren, azken urteetan gero eta jende gutxiago etortzen dela guregana, herriko aisialdi eskaintza oso zabala delako gaur egun: kirola, artea, dantza... denetik dago eta ez dago guztietarako ume nahikorik. Gure eskaintza txikientzat erakargarria zela ikusten genuen, baina adinean aurrera joan ahala, beste zerbait bilatzen zuten umeek. Mugimendu gehiago edo bestelako dinamika bat behar dute. Hori dela eta, Haur Hezkuntzara mugatuko dugu

*"Eragileon nahia da  
aisia eskaintza integrala prestatzea  
Elgoibarrerako"*

gure aisialdi eskaintza, eta hortik aurrerakoekin beste lanketa batzuk egingo ditugu, umeak, nerabeak eta gazteak aktibatzen.

**Zein izango da orduan aurrerantzean Atxutxiamai-  
karen egitekoa?**

Euskara elkarte baten barruan gaude, eta gure kezka nagusia euskara da. Euskarazko aisialdi oparoa dagoen arren Elgoibarren, euskararen erabilera datuak ez dira onak, eta azken urteetan behera egin du euskararen erabilerak. Horregatik, eragiteko beste modu batzuk aztertu behar ditugu. 30 urteren ondoren, etapa berri bati ekiteko unea dela uste dugu. Euskararen erabilera jaisten ari den honetan, euskalduntasuna lantzeko proiektuak jarriko ditugu martxan, gutxiago egin eta gehiago eragiteko. Hau da, ekin-tzari baino gehiago prozesuari eman nahi diogu garrantzia. Umeekin, nerabeekin eta gazteekin lanean jarraituko dugu, baina beste modu baten. Egiteki eragitera pasatuko gara, ume, nerabe eta gazteak euskararen eragile izan daitezten.

**Zeintzuk izango dira zuen lan ildoak?**

Gure lan ildoak honako hauek izango dira: familien arteko sozializazioa euskaraz, euskalgintza, kulturartekotasuna, kulturgintza eta aisia. Gazteentzako, adibidez, *ZZ Nagiak Kentzen* programa daukagu martxan, eta euskalduntasuna lantzen dugu haiekin, zuzenean. Orain arte, euskaraz ondo pasatzea izan da gure helburua, euskararekin bizipen positiboak izan ditzaten lortzea, eta orain ere euskaraz gozatzea izango da gure asmoa, baina beste ikuspegi batetik. Atxutxiamaikan lehenengo aldiz ari gara 16 eta 30 urte arteko gazteekin euskalduntasuna lantzen, eta oso lorpen handia da hori niretzat.

Familiekin ere egingo dugu lanketa, konturatu garelako euskararen transmisioan bagadoela eten moduko bat. Familietan, euskaldunak edo mistoak izan, etena egoten da eta proiektua berrantolatatu dugu, eraginkorragoa izan dadin. 30 urte hauetan asko aldatu da Elgoibar, eta gure lan egiteko modua aldatzea tokatzen da orain. Atxutxiamaiatik jolasa aterako dugu kalera, eta familiei baliabideak emango dizkiegu kalean beste batzuekin harremanetan jartzeko. Familiak ahalduzko bidea egingo dugu,

umeak hazten laguntzeko. Haur Hezkuntzako umeen familientzako izango da bereziki. Euskararen erabilera sustatzeko baliabideak ere emango dizkiegu, euren arteko elkarrizketarako foro bat sortuz, esaterako. Tailerrak ere emango dizkiegu, helduek eta umeek espazioak parteka ditzaten, modu horretan belaunaldi ezberdinetakoen arteko harremanak susta daitezten. Nagusiagoentzat *Gure Natura Ezagutz* egitasmoa daukagu martxan Baso Biziak eta Morkaikorekin elkarlanean eta Udalarekin lankidetzan. Nerabeekin ere hasita gaude lanean. Ikastetxeetan euskara batzordeak sortu ditugu ikastetxeekin elkarlanean, eta bi astetik behin joaten gara Institutura eta Ikastolara. Euskararen bueltan ia 100 nerabe aktibatu dira eta gauza pila bat ari gara egiten. Barrutik eragiten ari gara, gero haiek aktiba dezaten haien ingurua. Guk gure alea jarriko dugu, gero haiek izan daitezten euskararen eragile.

**Familia askorentzat kontziliaziorako arnagune  
izaten da Atxutxiamai oporraldian, eta aldaketa  
honek kezka eragin dezake.**

Bai, gurasoek ikusiko duten aldaketa handiena seguru izango dela LHko umeentzat ez dugula eskainiko oporraldirik, baina Elgoibarko eragileen eskaintzarekin udan ondo pasatzeko aukerarik ez da faltako herrian, eta kontziliaziorako aukerak egongo dira. Guk aisia eskaintzen jarraituko dugu, baina oporraldietan HHkoentzat bakarrik. Hala ere, Ludotekarekin elkarlanean jarraituko dugu, helburu bera daukagulako. Gure nahia da aisia eskaintza integrala prestatzea Elgoibarrerako, nahiz eta bakoitzak berea antolatu. Ez dugu arduragabekeriaz jokatu, eta saiaturiko gara ordutegiak uztartzen, familiei ahalik eta zerbitzurik onena emateko denon artean.

Udalaren lankidetzan oso garrantzitsua izan da 30 urte hauetan, eta aurrerantzean ere hala izan dadin nahi dugu.

## 'Gure Mauriziak' ekimena sortu dute Elgoibarren, herriko emakume pandero-joleak omentzeko

**G**izonezkoek okupatzen zuten plazara salto egiten ausartu ziren emakume pandero-joleak omenduko dituzte Elgoibarren martxoaren 11n, herriko hainbat eragilek elkarlanean antolatu duten *Gure Mauriziak!* ekimenean. Izan ere, trikitia gizonezkoen mundua zen duela ez hainbeste urtera arte. Plaza publikoa gizonezkoena zen, eta emakumea, egotekotan, gizonari laguntzeko zegoen. Plazan ziharduten emakumeak gaizki ikusita zeuden, fama txarra zuten, baina, hala ere, plazara irteten ziren. Maurizia Aldeiturriaga da, beharbada, eza-gunena Euskal Herrian, baina beste Maurizia asko ere izan ziren. Ekimenaren sustatzaileak Elgoibarko Maurizien bila jardun dira eta lau topatu dituzte: Pantxika Zubizarreta Gurrutxaga (1888-1964), Juliana Esnaola Arakistain (1892-1974), Martzelina Zubizarreta Gurrutxaga (1892-1991) eta Juliana Zubizarreta Gurrutxaga (1910-2006).

Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, Inazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskola, Ongarri zine-kluba, Haritz Euskal Dantzari Taldea eta Badihadugu elkarteak dira ekimenaren sustatzaileak, eta martxoaren 11n, 18:30ean, Kalegoen plazan elkartzeko deia egin dute. Izan ere, plazatik Herriko Antzokira arteko kalejira antolatu dute trikitia eta panderoa jo(tzen) duten herriko emakumeekin. Kalejiran parte hartu nahi dutenei aurrez jakinarazteko eskatu diete eta bi bide zabaldu dituzte horretarako: Posta elektronikoa ([elgoibarmusika@gmail.com](mailto:elgoibarmusika@gmail.com)) eta telefona (628 929 055. Imanol).

Herriko Antzokian egingo dute Gure Mauriziak! jaia eta aurreratu dute trikitia, kantua, dantza, omenaldia eta *Aire!* dokumentalaren emanaldia izango dituela osagaiak.

## Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte Mendaron, asteburuan

Martxoaren 1a da Aingeru Guardakoaren eguna, eta meza ospatuko dute Mendaron, Plaza auzoko izen bereko ermitan, 11:00etan. Jai handia, baina, domekan egingo dute. 11:30ean Hitzaren liturgia izango dute, eta elizkizunak amaituta, 12:00etan hasiko dute festa ermita kanpoan. Mainer Arregi eta Aitor Urbieta bertsolariak gonbidatu dituzte kantarako eta herriko trikitilari gazteek jarriko dute musika: Elene Goikoetxea, Jare Agea eta Garazi Ulazia soinu-joleak eta Aitana Archeli eta Irantzu Agirregabiria pandero-joleak. Ondorenerako, herri-kirol erakustaldia lotu dute. Julen Cañameres eta Aratz Mugertza aizkolariak jarriko dituzte lanean, eta aizkora-jokoan eta saltaka arituko dira biak, nor baino nor. Antolatzaileek txosna jarriko dute jan-edanerako.

## Herriko dantzarietako arropak josten hasi dira joskintza tailerrekoak



Joskintza tailerra antolatu zuen iaz Mendaron In Leike kultur elkarteak, zekitenek ez zekitenei josten erakusteko eta komunitatea sendotzeko, eta 40 bat emakumek eman zuten izena. Astean birritan elkartzen dira joskintza tailerrekoak udaletxeko hirugarren solairuan, eta orain, talde horretara batutako zenbait Mendaroko Gazteak herriko dantza taldekoentzako arropa berriak josten hasi dira. Herriko dantzariak azkena plazan erabili dituzten arropak ere Mendaroko emakumeek josi zituzten, santa eskekoek batutako diruarekin oihalak erosita, eta orain ere, emakumeak ari dira zeregin horretan, In Leike oihalak erosita. Argazkian, egiteko horretan ari direnetako batzuk, lanean fin.



## Euskaraldian parte hartzera deitu dituzte entitateak, hizkuntza ohiturak aldatzeko

**E**uskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko eta horretarako modua emateko, Euskaraldian parte hartzera deitu dituzte entitateak; hau da, enpresa, kirol eta kultur elkarte, denda, taberna eta antze-koak. Maiatzaren 15etik 25era egingo da Euskaraldia, hizkuntza ohiturak euskarara ekartzeko ariketa soziala eta joan zen astean eman zituzten entitateentzako argibideak. Esan zuten dagoeneko milaka eta milaka entitatek eman dutela izena Euskaraldian, baina falta direnei pausoa emateko eskatu zieten. Horretarako, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean sartu

beharko dute, bertan izango dutelako eskura informazio guztia.

Laugarren edizio honetan oinarritzko egitekoak izango dituzte entitate guztiek: kideak Euskaraldiaren inguruan informatu, prestatu eta ariketa ikusgarri egin besteak beste, baina lanketa sakonagoa egiteko aukera ere izango dute hala erabakitzen duten entitateek. Bestelako pausoak ematea hautatzen dutenei euskararen erabilera sustatzeko aurrerapausoak ematea proposatuko diete antolatzaileek, hala nola: ariguneak sortzea, bilerak euskaraz egiteko neurriak hartzea, mintzatratuak adostea...

### 140 ikaslek parte hartu dute Elgoibarko piano topaketan



Euskal Herriko Musikarien Elkartek antolatuta, piano topaketa egin zuten zapatuan Elgoibarran. Hainbat herritatik etorritako piano ikasleek hartu zuten parte, eta haiek batera, Inazio Bereziartua musika eskolako 50 batek. Batzuek bakar-

ka eta beste batzuek binaka jo zituzten jaialdirako prestatutako piezak. Lau txandatan banatu zuten topaketa, eta goizez eta arratsaldean izan ziren emankizunak. Partaideei zapi eta diploma bana eman zieten. Goiko irudian 1. txandako umeak.

### Salgai daude Mendaron Motxaila Eguneko bertso saiorako sarrerak

Bertso saioa antolatu du Motxaila Elkartek martxoaren 14rako, Udalaren babesarekin (San Agustín kulturetxoan, 22:00etan). Nerea Ibarzabal, Jone Uria, Joanes Illarregi eta Julio Soto bertsolariak jarriko dituzte kantuan Ainhoa Urbieta gai-jartzaileak eta sarrerak salgai daude Morroskillon eta Aitzbeltzen, 8 euroan.



## Euskadiko Ikasleen Orkestran parte hartzeko hautatu dute Nahia Olivares



Inazio Bereziartua eskolako ikaslea zenean ere hautatu zuten duela bi urte, eta orain, Durangoko Bartolome Ertzilla Kontserbatorioko ikaslea dela, berriro. Lehen biolin sailean lortu du postua Olivaresek. Orkestrarako hautatutakoak apirilaren 19tik 25era elkartuko dira Unai Urrecho maisuarekin, apirilaren 23an, 24an eta 25ean, Bilbon, Gasteizen eta Donostian emango dituzten kontzertuak prestatzeko.

---

### Euskal Herriko emakume erreferenteen inguruko ginkana egingo dute Mendaron, hilaren 7an



Historian zehar Euskal Herriko emakumeek egindako ekarpena ezagutarazteko ginkana antolatu dute Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak martxoaren 7rako, 7 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Ginkanan parte hartzeko izena eman behar da [kultura@mendaro.eus](mailto:kultura@mendaro.eus) helbidera idatzita (Martxoaren 5a da azken eguna). Ginkanak bi orduko iraupena izango du, 17:00etatik 19:00etara.

## Inauterietako kontzertua emango du gaur Sinuösek, Kultur Etxeko Sotoan



Sinuöse elkarteko Patxi Zabaletak eta Iban Urizarrek inauterietako kontzertua emango dute, gaur, barikua, hilak 28, Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan. Gauza gutxi aurreratu daitezke kontzertuaz, beti delako berria, berritzailea eta berezia Sinuösekoen emana, baina aurreratu dute esperimentaziotik eta inprobisaziotik izango duela aurtengoak ere. Era berean, jakinarazi dute ikusleen parte-hartzea ere sustatuko dutela eta sorpresaren bat ere izango dela, ohi legez. 23:00etan izango da kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

---

### Familiantzako antzerki emanaldia, domekan, Elgoibarren

*Eneko eta Ixabel, bertako elikagaien bila* antzezlanaren ekarriko dute martxoaren 9an Elgoibarko Herriko Antzokira Eidabe ekimen kulturalakoek (16:30). Itxaso Payak idatzitako obra da, Ugaitz Alegriak zuzendutakoa, eta elikagaiak eta haien jatorria ezagutzeko eta sasoian sasoikoa eta hemen bertokoa jatearen garrantziaz ari da. Herriko Antzokian erosi daitezke sarrerak aurrez, eta bestela, zapatuetan, 18:15etik 20:45era edota egunean bertan, leihatilan. Euskaraz izango da antzerkia.

## Inauteriak, urtetik urtera hazten doazen jaiak



**I**nazio Bereziartua musika eskolakoez hasi ziztuzten atzo, eguen gizenez, inauteri festak Elgoibarren, eta gaur, bariku mehe, Elgoibarko Ikastolakoak irtengo dira kalera, euskal inauteriak antzeztera. 15:00ak aldera irtengo dira ikastolatik ikasle eta irakasleak, euskal inauterietako ohiko pertsonaiez mozorrotuta eta Kalegoen plazara arte joango dira kalejiran, bidean euskal dantzak dantzatzuz. Plazan emango diote azkena, elkarrekin. Kalera irtengo direnak ikastolakoak izango dira (euririk egin ezean, beti ere), baina gainerako ikastetxeetako eskola-umeek ere egingo dituzte beren jaialdiak. Gaur, Mendaro ikastolakoek, eta martitzenean, Herri Eskolakoez.

Egun osoko jai-egitaraua lotu dute Elgoibarren eragile ezberdinek biharko. Hasteko, 12:30ean, erraldoi eta buruhandiak irtengo dira kalera, zenezikletekin batera, eta Haritz Dantza Taldeak antolatuta, Bentzaharreko mutiko alaien emanaldia izango da. Arratsaldean, 17:30etik aurrera Atxutxikaraokan parte hartzeko aukera izango dute 2 eta 12 urte bitartekoek, Maalako parkean, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika taldearen eskutik. Ondoren, Mautitxa txarangakoez kalejira hasiko dute, eta gauerdian Bertsio Gaia izango dugu, Maalan. Azken urteetan bezala, bakarka nahiz taldean parte hartzeko aukera izango da Bertsio Gauean, eta sariak ere izango dira. Taldekako irabazleak, esaterako, 250 euro jasoko ditu eta bigarren talde onenak 170 euro. Bakar-kako irabazleak, berriz, 170 euroko saria izango du, eta bigarrenak 150 euro. Nahi duenak *elgoi-*

*barkoizarra.eus* webgunean eman dezakete izena aurrez, eta bestela, egunean bertan, han.

### MENDAROKO EGITARAUA

Mendaro ikastolakoek hasiko dituzte gaur inauteriak Mendaron, baina biharko eguna izango da beteena. Bizi-poza txarangak emango dio hasiera festari, 12:30ak aldera, eta batuko dira kuadrillak plaza bueltan. Elkarrekin bazkaltzeko eguna izaten dute kuadrilla askok biharkoa, eta horren adierazgarri da hartuta daudela biharko herriko taberna eta elkarte guztiak bazkaritarako. Arratsalderako, Mugi zaitez disko festa dago iragarrita. 17:00etan hasiko da, eta 18:00etan txokolate beroa banatuko dute Arno guraso elkarteak. Haiek antolatuta, playbacka ere izango da gero, 18:00etatik aurrera, frontoian.

### MARTITZEN KARNABALA, ELGOIBARREN

Inauterietan azkena martitzenean emango zaie, baina, gurean, eta Elgoibarren antolatua dute arratsalderako jai-egitaraua. 17:00etan *Gora Bihotzak* ikuskizun musikalaz gozatzeko aukera izango da Maalan, eta orduerdian beranduago mozorroen dantzaldia hasiko dute, jubilatuen biltzikoez euren lokalean. 18:15etik aurrera, berriz, Biraka dantza taldeak *Biraka inauteriak* ikuskizuna emango dute, Mautitxa txarangakoez eta erraldoiek lagunduta. Maalatik irtengo dira eta aurreratuta dute buruhandirik ez dela irtengo egun horretan kalejiran.



## Ane Agirregomezkorta elgoibartarrak irabazi du 60 metrotako Euskadiko Txapelketa

Pista estaliko denboraldi aparta egiten ari da Ane Agirregomezkorta Garcia (Elgoibar, 2007). Mintxeta taldeko esprinterra lasterketa motzenean lehiatzen ari da, 60 metroko proban. Maila absolutuko pista estaliko Euskadiko Txapelketan lehiatu zen urtarrilaren 25ean, Belodromoan. C.D. Eibar taldeko Elene Arrazolak irabazi zuen txapelketa, 07.70eko denborarekin eta Agirregomezkorta izan zen txapel-dunordea, 07.76ko denborarekin. Distantzia honetan 07.72 da bere marka pertsonala. Hurrena, gazte mailako Gipuzkoako txapelketan lehiatu zen Agirregomezkorta, 20 urtez azpikoen mailan, hain zuzen. Txapelketa hori ere Donostian jokatu zuten, otsailaren 8an, eta Agirregomezkorta izan zen azkarrena. Joan den zapatuan leku berean jokatu zuten gazte mailako Euskadiko Txapelketan ere bera izan zen onena. Partaideak hiru finalurrekotan lehiatu ziren lehenik, eta Agirregomezkorta horietako bat irabazita sailkatu zen finalerako,



hiru serietako markarik onenarekin: 7 segundu eta 78 ehuneko. Finalean oso antzerako denbora egin zuen, eta berak irabazi zuen urrea, 07:79ko denborarekin. Ostadar taldeko Iraia Alkorta izan zen txapeldunorde (07.87) eta Hiru-Herri taldeko Laura Vicente igo zen podiumeko hirugarren koskara. Euskadiko txapelketan lortutako emaitzari esker, gazte mailako pista estaliko Espainiako txapelketa jokatzeko sailkatu da Agirregomezkorta. Martxoaren 8an jokatuko, dute Salamancan (Espainia).

### Bolada ona luzatu dute Sanloko taldeek

Hirugarren astez jarraian irabazi dute Sanloko senior mailako hiru taldeek: Malapek, Alcortak eta Pizzeria Salentok. Senior emakumezkoen taldeak, Malapek, 30-28 irabazi zion Urdaibai Bilboats taldeari Olaizagan jokatutako partida parekatuan. Alcortak Forging Groupek, berriz, balio handiko garaipena lortu zuen Donostian, Saieko taldeari 27-34 irabazita. Azkenik, Salento Pizzeria taldeak garaipen argia eskuratu zuen etxean, Urola taldeari 37-23 irabazita. Alcortak etxean jokatuko du 20. jardunaldiari dagokion neurketa, zapatuan, 18:00etan, Corazonistas Vitoria taldearen aurka. (👊 Noemi Garcia)



## Leire Egaña Euskadiko txapelkun, seigarrengez

J oan den urrian jokatu behar zuten 2024ko emakumezkoen Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketa, gizonetzkoenarekin batera, baina Emakumezkoen Espainiako Ehiza Xehe Txapelketa ere egun berean zela-eta, Euskadiko Ehiza Federazioak otsailera arte atzeratu zuen, eta domekan jokatu zuten. Ohi moduan, Zanbranako *El Castillo* ehiza barrutian egin zuten txapelketa, Araban. Leire Egaña Lur izeneko txakurrarekin lehiatu zen, lau urteko Setter Ingles arrazako txakurrarekin, eta bost eper ehizatu zituzten bien artean, beste inork baino gehiago. Anuska Bretaña sailkatu zen bigarren postuan, bi eper eta galeper bat ehizatuta, eta Uxue Olavek egin zuen hirugarren, bi eperrekin. Egañak zazpi alditan hartu du parte Euskadiko txapelketan eta



seitán irabazi du (2017, 2018, 2019, 2021, 2022, eta 2024). 2023koan bakarrik gelditu zen irabazlearen txapela jantzi gabe.

### Haundiko bi taldeak jaitsiera postuetan sartu dira

Ligako azken jardunaldiaren ostean, jaitsiera postuetan sartu dira C.D. Elgoibarko bi talde nagusiak, Ohorezko Erregional Mailan lehiatzen ari diren emakumezkoen zein gizonetzkoen Haundi taldeak. Liga amaitzeko hamaika jardunaldiren faltan sartu da jaitsiera postuetan gizonetzkoen Haundi taldea. Ligako azken partidari 1-2 galdu zuten Mintxetan, Añorgaren aurka. Elgoibarren lortutako garaipenari esker, donostiarrak sailkapen buru dira orain Ohorezko Erregional Mailan. Aldiz, porrotarekin, Haundiri (20 puntu) aurrea hartu dio sailkapenean atzetik zuen Hernanik (22 puntu), eta elgoibartarrek Beti Gazte (18 puntu) eta Vasconia (10 puntu) bakarrik dituzte atzetik orain. Ohorezko Erregional Mailan 18 talde ari dira lehian eta azken hiru taldeak jaitsiko dira. Haundik bost partida bakarrik irabazi ditu denboraldi honetan, 12 galdu eta bost berdindu ditu. Hurrengo jardunaldian Bergaran jokatuko dute, seigarren sailkatuaren etxean.

Era berean emakumezkoen Haundi taldea ere gizonetzkoenaren antzerako egoeran dago. Azken jardunaldian 3-0 galdu zuten Urolaren aurka. Hamasei talde ari dira lehiatzen eta une honetan 14. postuan daude elgoibartarrak, 15 punturekin. Atzetik dituzte Beti Gazte (14 pun-



tu) eta Ondarbeltz Amaiak Mutriku (0 puntu). Azken hiru sailkatuek galduko dute maila. Haundik baino bi puntu gehiago du Irauli Bos-teko taldeak eta 7 puntu gehiago 12. postuan dagoen Hernanik. Elgoibartarrek Ostadar taldearen aurka jokatuko dute asteburuan, Mintxetan. Elgoibartarrek Ostadar taldearen aurka jokatuko dute asteburuan, Mintxetan. Domekan izango da partida, 16:30ean. Klubetik taldea animatzera joateko deia egin dute.

## Berritasunez beteta dator 25. Pilota Eguna

Elgoibar Ikastolak martxoaren 8rako antolatu du Pilota Eguna eta aurtengoa berezia izango dela iragarri dute; 25. ekitaldia izango delako batetik, eta Kilometroak jaia ospatzeko urtea delako bestetik. Pilota plazara eramaten du Elgoibar Ikastolak Pilota Egunean, baina aurten hiru pilotalekutara eramango dute jaia, Sigmako, plazako eta Elgoibar Ikastolako frontoietan esku pilotaz gozatzeko jolasak antolatu baitituzte jardunaldiari hasiera emateko. Jolasok 09:00etatik 10:15era egingo dituzte aipaturiko hiru frontoietan. Ondoren, 10:30etik aurrera, finalak jokatuko dituzte Kalegoen Plazan (euria egingo balu, Ikastolako frontoian).

Finalerako sailkatu diren 28 bikoteek hamalau partida jokatuko dituzte, 12 tantora. Finalok jokatzeko bitartean, pilotak egiteko tailerra emango dute Ikastolako ikasleek eta Oterro Pilotagileak pilotak saltzeko postua ipiniko du plazan. Era berean, tonbola bat ere egingo da



plazan, esku pilota munduarekin zerikusia duten produktuekin: pilotarien kamisetak, sinatutako pilotak, eskumuturrekoak, pilotak e.a. Sari banaketa egin eta gero, barruska jokatzeko aukera izango dute helduenek.

### Luken Beitiak Ligan ere debutatu du Realarekin

Luken Beitiak (Elgoibar, 2004) Espainiako Errege Kopako partida batean egin zuen debuta Realaren lehen taldearekin, iazko azaroan, Jove Español San Vicente taldearen aurka Alacanten jokatuako partidaren. Domekan, berriz, Lehen Mailako Liga txapelketan aurreneko partida ofiziala jokatzear gainera, estreinako jokatu zuen zaleen aurrean Reale Arenan. Beitia 83. minutuan zelairatu zen, Aritz Elustondo ordezkatuz. Ordu-rako garaipena lotuta zuen Realak, 3-0 irabazten ari baitzen, eta amaierara arte eutsi zioten emaitzari.

Imanol Alguacil entrenatzaileak hasierako hamaikakoan sartu zuen Beitia Kopako partidaren, eta asko gustatu zitzaion erdilari elgoibartarrak eginiko partida, eta zelaian izan zuen jarrera. "Futbola oso ondo ulertzen duela erakutsi zuen Kopako partidaren eta baita patxada handiko mutila dela ere. Horregatik, banekien Ligan jokatzeko ere prest dagoela", esan zuen Beitia partidaren atarikoan. Beitiak betirako gogoan izango du Leganesen aurkako partida. Lagunekin ospatu zuen debuta, partida amaieran harmailetan haiengana joanda. Une hori jasotzen duen irudia zabaldu zuen Realak sare sozialetan, honako mezuarekin: "Ez dago Reale Arenan lehen taldearekin jokatu eta lagunekin ospatzea baino gauza hobirik".





## Mendaroko eta Elgoibarko 84 emakumek hartu dute parte aurtengo Lilatoian, iaz halako bik



Lilatoian parte hartzeko izen-emateak itxita zeuden urtarilaren erdirako, eta adin desberdinetako 6.200 emakume zeuden izena emanda, tartean elgoibartar eta mendaroar ugari. Iaz, Mendaroko eta Elgoibarko 40 emakumek parte hartu zuten, eta aurten bikoiztu egin da kopurua, Elgoibarko 72 emakumek eta Mendaroko 12k bukatu baitzuten domekan lilatoia. Guztira 5.322 emakumek amaitu zuten proba. Lehiaketarako tarte ere badauka lasterketak, baina askoz gehiago du aldarrika-

penetik. Lilatoia emakumeen ahalduzaren ospakizuna dela azaldu zuen Atlético San Sebastian elkarteko komunikazio arduradun Alicia Vicandik lasterketaren aurkezpenean: "Kiro-laren, berdintasunaren eta edozein erronka konkistatzeko dugun gaitasuna erakusteko proba da". Itziar Ibarbia alkizarra izan zen bost kilometroko ibilbidea osatzen azkarrena, 18 minutu eta 33 segundoko denborarekin. Elgoibartarren eta mendaroarren emaitzak [barren.eus](http://barren.eus) webgunean.

### Urrezko Aizkolariak txapelketako finalerako sailkatu da Uxue Ansorregi

Gizonezkoen XXV. Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako eta Emakumeen Banakako Urrezko Aizkolari Txapelketako finalerdiak jokatu zituzten domekan Oñatiko Foruen plazan. Emakumezkoen txapelketan, finalerako bi txartel zeuden jokoan, eta sei lehiakide. Hiruko bi multzotan lehiatu ziren aizkolariak, eta bakoitzeko onenak sailkatu ziren finalerako: Uxue Ansorregi mendaroarra eta Karmele Gisasola *Zelai III* mallabiarra. Bikoteka sarritan aritu dira elkarrekin Ansorregi eta Gisasola eta garaipen garrantzitsuak lortu dituzte, azkena urte hasieran, Urrezko Aizkolarien Kopako txapela irabazi baitzuten. Banakako lehiaren ere primeran moldatzen direla erakutsi zuten, baina, Oñatin. Finaletik kanpo gelditu ziren Oihana Fernandez de Barrena, Malen Barrenetxea, Nerea Sorondo eta Irati Astondoa.

Finala Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jokatu dute martxoaren 16an. Hodei Ezpeleta mendaroarrak asteburu honetan izango du gizon-



koen binakako txapelketaren finalera sailkatzeko aukera. Ezpeletak Arkaitz Etxebesterekin osatuko du bikotea martxoaren 2an Urrotzen jokatu duten finalurrekoan.

## LANA

## Eskaintza

Odontologoa behar dugu Ermuko Hartz Klinika baterako. Lanaldi partziala, adosteko. Odontologia zaharberritzailean esperientzia balaratuko da, nagusi zein umeetan. Interesatuak bidali CV-a [niklinika@gmail.com](mailto:niklinika@gmail.com) helbidera.

DBH3ko ikasle bati matematika eta ingeles eskolak emateko pertsona behar dugu. Astelehen, astearte eta asteazken arratsaldeetan ordu eta erdiz, 16:00etatik 17:30era edo 17:00etatik 18:30era. **656 774 215** (Amaia)

## Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitariarioa ditut. **654 994 405**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **614 114 360**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketara lanak egiteko ere prest. Esperientzia. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizaina naiz, eta urteetako esperientzia daukat, baita titulu soziosanitariario ere. **643 505 662**

Adinekoak zaintzen edota garbiketara lanetan aritzeko prest. Orduka. Astebarruan, 12:00etatik aurrera nago libre. Asteburuetan etxeko langile moduan aritzeko ere prest nago. **631 785 168**

Adinekoak zaindu edo etxeko garbiketara egingo nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Berehala lanean hasteko. **632 915 336**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest nago. **631 319 476**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxean nahiz ospitalean. Titulu soziosanitariarioa daukat eta urte askotako esperientzia. **660 511 781 / 943 742 330**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Arratsaldean edo gauetan. **642 701 710**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan, zein orduka. **642 180 611**

Garbiketara lanetarako prest nago. Orduka. **631 020 169**

Edozein lan egiteko prest nago. Orduka. **612 540 008**

## BESTELAKOAK

Gurpildun aulki elektrikoa salgai. Oso erabilgarria, dutxan sartzeko modukoa. Estreinatuta gabe dago. **652 735 554** (Aitzol)



Oraiko diskoteka zeneko *posabazoren* bat nahiko nuke, eta baita Pelouse diskotekako poxpolo kaxa bat ere. Horrelakoren bat duenari eskertuko nioke nirekin harremanetan jartzea. **688 624 326**

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos Euzkoako Enkainatzaileak Elkarrekin</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean, jabekideak denontzako kuota bera izan datu genuen komunitateko gastuak ordaintzeko. Orain jakin du partaide-kuotaren arabera zehaztu daitekeela nork zenbat diru jarri gastu horiek ordaintzeko. Hau da, etxejabeek ez genduzkeela denok diru-kopuru bera ordaindu behar. Jakin nahiko nuke ia orain arteko ordainketa-modua aldatzeko modurik daukagun.</b></p> <p>Faktore askoren arabera izango da hori. Ez da gauza bera urteetan kuota hori ordaintzen egon den etxejabe batek eskatzea edo komunitate horretara iritsi berri den etxejabe batek eskatzea. Kontuan hartu behar da, era berean, beste hainbat gauza: aurrez jabekide guztien artean onartutako zerbait den etxejabe guztiek gogo onez betetzen diren hori, jabekideen batzarrean ordainketa modu hori aldatzea aztertu den edo ez... Jabekideen batzarrek ordainketa modu hori aldatzea erabakitzen badu, ez dago aldatzeko eragozpenik. Kuotak partaide kuotaren arabera ordaintzea proposatzen duena etxejabe berria bada eta Jabetza Erregistroan jaso gabe baldin badago orain arte ordaintzen egon diren kuota horrek zenbatekoa izan behar duen, etxejabe horrek lortu ahaliko du partaide kuotaren arabera dagokiona ordaintzea, Jabetza Erregistroan jaso gabeko akordioek ez dutelako baliorik.</p> <p><b>AHOLKUA: Etxejabeek ahoz adostutakoa baldin bada denek kopuru berean ordaintzea eta denek gogo onez bete badute orain artean, etxejabe horiek guztiak behartuta egongo dira adostutakoa betetzera, Jabetza Erregistroan jasota egon ez arren.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	---




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Ipar**, 5 urte bete dituzulako. Bost patxo potolo zuretzat, familiako guztion partez.



Zorionak, **Izaro!** 6 urte dagoeneko! Muxu handi bat, etxekoan partetik.




Zorionak, **June**, atzo 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Gorka eta Naroaren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Nora**, otsailaren 26an 5 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiako guztion eta, bereziki, ahizpa Malenen partez.



Zorionak, **Lea** eta **Danel**, martxoaren 4an 6 urte beteko dituzuelako. Muxu handi bat aitxitxa Manuel eta amama Lourdesen partez.



Zorionak, **Galder!** 10 urte! Gure 10 urte zoriontsuenak! Etxeko denon partez.

**Alfonbrak garbitzeko zerbitzu berria DEITU! 660 912 542**

Olaso 15, 74. pabiloia

[elgogarbitetak](https://www.instagram.com/elgogarbitetak)

**ELGO GARBIKETAK**

**ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA!**

**100 €ren truke zure etxeko sofa garbitzen dugu!**

**EHUNAK GARBITZEKO GURE ZERBITZUAK:**

AUTOAK	SOFAK	KOLTXOIAK	ESERLEKU TAPIZATUAK

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BEKO HSM29540**

**IZOZKAILU HORIZONTALA**

**ATG E**

**439 €**

- 110,50zm-ko zabalera
- 298 Litro
- Desizoztea, eskuz
- 2 saski
- Tiratzaile integratua
- Sarraila
- Klimatizazio maila: SN-T

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,  
TEMPUR FORM  
KOLTXOI BAT EROSTEAGATIK.  
(IKUSI BALDINTZAK)\***

943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**TEMPUR**

\*TEMPUR burkua original bat erosten zaku M 1000 x 190 cm-ko 100en artean. TEMPUR FORM koltxoia erosten zaguena 10 burkua erosten zaguena 1000x190cm-ko. TEMPUR FORM koltxoia erosten zaguena 120cm-ko erosten zaguena 120cm-ko erosten zaguena.

**TEMPUR FORM KOLTXOIA**



## 28 BARIKUA

**19:00** Topaketa: Elgoibarko Isiltasunaren Eskola. Jose Cruz Igartuarekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**20:00** Elkarretaratzea. Hileko azken barikuko elkarretaratzea egingo dute, *Behin betiko etxera* lemapean. Kalegoen plazan.

## 2 DOMEKA

**10:00** Tailerra: Harreman osasuntsuak. Belen Capaperekin, Lilan. Izena emateko: 656 869 534

## 5 EGUAZTENA

**16:30** Lehen sorospen tailerra. Jubilatuen Biltokian.

## 6 EGUENA

**Denden ordutegian**, Stock kale azoka. Txan-kakuak antolatuta, denden atarietan.

**16:30** Lehen sorospen tailerra. Jubilatuen Biltokian.

**17:00** Azalerako ipuinak. 0-1 urteko haurtxoentzako ipuin kontalari saioa, Saroa Bikandirekin. Gotzon Garate udal liburutegian.

**19:00** 'Sahara, herri bat erresistentzian' liburuaren aurkezpena eta solasaldia Kristina Berasain kazetariarekin. Mendaroko Udaltzatza aretoan.

## 7 BARIKUA

**Denden ordutegian**, Stock kale azoka. Txan-kakuak antolatuta, denden atarietan.

**17:00** Emakume historikoak ezagutarazteko ginkana, Mendaron.

**17:30** Emakume langileen borrokari buruzko erakusketa. Mendaron, Lagun Betikoak Jubilatuen egoitzako lokal zurian.

**19:00** Triki-poteo-berriketaldi feminista. Maalan.

**19:30** Tardeo feminista. Zatekeen erromeria eta DJ Galtzagorri. Maalako parkean.

**21:00** Emakume feministen afaria. Kultr Kaifean.

## INAUTERIAK 2025 ELGOIBAR

### OTSAILAK 28, BARIKUA

**15:00** Euskal inauteriak. Ikastolak antolatuta.

**17:30** Karaokea. Gaztelekuan.

**23:00** Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

### MARTXOAK 1, ZAPATUA

**12:30** Erraldoi eta buruhandiak, zezenzikle- tekin eta dultzaineroekin.

**12:30** Kalejira: Bentazaharreko mutiko alaiak. Haritz dantza taldeak antolatuta.

**13:30** Inauterietako bazkalria. Ludotekan.

**17:30** Atxutxikaraokea. Maalan. 2-12 urte bitarteko umeentzat.

**Jarraian**, Mauxitxa txarangarekin, kalejira.

**00:00** Bertsio gaua. Maalako parkean.

### MARTXOAK 2, DOMEKA

**17:00** Just dance txapelketa. Gaztelekuan.

### MARTXOAK 4, MARTITZENA

**17:00** 'Gora bihotzak' musika ikuskizuna. Maalan.

**17:30** Mozorroen dantzaldia. Jubilatuen Biltokian.

**18:15** Birakauteriak. Biraka dantza taldekoen kalejira, Mautxitxa txaranga eta erral- doiekin. Maalatik hasita.

## INAUTERIAK 2025 MENDARO

### MARTXOAK 1, ZAPATUA

12:30 Bizi Poza txarangaren kalejira

17:00 Mugi zaitetz disko festa

18:00 Txokolatada, eta ondoren, playback

## AINGERU GUARDAKO JAIK

### 1 ZAPATUA

**11:00** Aingeru Guardakoaren eguneko meza, Mendaroko Plaza auzoko ermitan.

### 2 DOMEKA

**11:30** Hitzaren liturgia

**12:00** Bertsolari eta trikitilarien saioa. Maider Arregi eta Aitor Urbieta arituko dira bertsotan, eta Elene Goikoetxea, Jare Agea, Garazi Ulazia, Aitana Archeli eta Irantzu Agi- rregabiriak osatuko dute trikitilari taldea.

**Ondoren**, herri-kirol saioa. Julen Cañameres eta Aratz Mugertza arituko dira buruz buru aizkoran.

**Zinea** Herriko Antzokian**'The brutalist'**

28 barikua: 19:00  
 1 zapatua: 19:00  
 2 domeka: 19:00  
 3 astelehena: 21:00

**'Finnick, un monstruo en cada casa'**

2 domeka: 16:30

**'La Luz que imaginamos'**

(Ongarri zinekluba)  
 5 eguaztena: 21:00

**2025eko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**OTSAILA**

28 BARIKUA

■ Oruesagasti

**MARTXOA**

1 ZAPATUA  
 2 DOMEKA  
 3 ASTELEHENA  
 4 MARTITZENA  
 5 EGUAZTENA  
 6 EGUENA  
 7 BARIKUA

Arriola  
 Arriola  
 ■ Soto  
 Garitaonandia  
 Arriola  
 ■ Fernandez  
 Yudego

**2025 urte guztian, gauzez:**

Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)  
 943 204 230

■ Fernandez:  
 Herriko  
 Enparantza, 4  
 Garagartza  
 (Mendaro)  
 943 756 142

■ Soto  
 Rekalde, 1  
 (Soraluze)  
 943 751 638

■ Oruesagasti:  
 Kalebarren, 9  
 (Soraluze)  
 943 751 384



**ZUREKIN BATERA  
 IREKITZEN DUGU  
 EGUNERO,  
 zure negozioa  
 bultzatzeko**



**Kresala Surf Eskola,  
 2023az geroztik**

# LOKALIA

Dena tokiko merkataritzarako.  
 Dena tokiko merkataritzarentzat.

[laboralkutxa.com/eu/lokalia](http://laboralkutxa.com/eu/lokalia)

LABORAL Kutxan geure aletxoa ipini nahi dugu, **tokiko merkataritzak** gure herri eta hirietako aktiborik handienetakoa izaten jarrai dezan.

**LOKALIA** laguntzeko jaio da, eta **irtenbide integrala** eskaintzen du, gauzak errazteko, lasaitasuna emateko eta saltoki txikien ezaugarri guztiak sendotzeko.


**LABORAL**  
 kutxa



Sare  
Astigarraga  
Carcedo

12 urte, Elgoibar

*"Koloretako zuhaitza"*



Adan  
Leon  
Canca

11 urte, Elgoibar

*"YOKAI"*





# IKUSI MAKUSI

Bakoitzetik zenbat diren asmatzeko gai zara?



- \_\_\_ BETAURREKOAK    \_\_\_ ORDULARIAK
- \_\_\_ BALOIAK        \_\_\_ LIBURUAK
- \_\_\_ ARKATZAK      \_\_\_ GOXOKIAK

# HITZAK OSATU

Ordenatu hizkiak eta fruitu bakoitzaren izena asmatu




I A B A H A

-----



L I B O K A E R A K A

-----



O M I E L A

-----



I W I K A

-----

# JEROGLIFIKOAK



Non duzu mina?

-----



Nolakoa da ariketa?

-----



Non utzi duzu bizkortexoa?

-----

Erantzunak: \_\_\_\_\_

Jeroglifikoak:  
SABELEAN  
ERRAZA  
LABEAN

Hitzak osatu:  
AHABIA  
ALBARIKOKEA  
MELOIA  
KIWI


Jeroglifikoak:  
9 BETAURREKOAK  
11 ORDULARIAK  
8 BALOIAK  
5 LIBURUAK  
3 GOXOKIAK  
9 ARKATZAK

# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA  
ETA HARRIA



LURZORU  
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO  
PISERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAKUNTZARAKO  
MATERIAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692